Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2389

AGINDUA, 2009ko martxoaren 20koa, Kultura sailburuarena, Arbiganoko (Erribera Goitia, Araba) Santa Isabel eliza, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

2008ko abenduaren 12an, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpena eman zen. Ebazpen horren bidez, hasiera eman zitzaion Arbiganoko (Araba) Santa Isabel elizak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari. Ebazpen hau 2009ko otsailaren 17ko EHAAn argitaratu zen (33. zk.).

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legearen 17. eta 11.3 artikuluetan eta artikulu horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Legeak agintzen dituen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Arbiganoko (Araba) Santa Isabel eliza Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

Bigarrena.– Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen I. eranskinean agertzen den bezala eta II. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2389

ORDEN de 20 de marzo de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe la Iglesia de Santa Isabel, sita en Arbígano, Ribera Alta (Álava) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural. En desarrollo de la misma, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural de la Iglesia de Santa Isabel, sita en Arbígano, fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 12 de diciembre de 2008, publicada en BOPV n.º 33, de 17 de febrero de 2009, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también se concedió audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no ha sido presentada alegación alguna.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.– Inscribir la Iglesia de Santa Isabel, sita en Arbígano (Álava), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien en los términos expresados en el anexo I y conforme a la delimitación que se indica en el anexo II de la presente Orden.

Hirugarrena.– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari agindu honen berri ematea.

Laugarrena.– Erribera Goitiko Udalari bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea, Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Espedienteko interesdunei, Erribera Goitiko Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria et Kirol eta Hirigintza eta Ingurumen Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari agindu hau jakinaraztea.

Seigarrena.– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Inskribatzeko den agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik izango ditu ondorioak.

Bigarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, agindu hau azken aldiz argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 20a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

Mugatzea

a) Mugatzearen deskribapena.

Mugatutako eremuaren barne geratzen dira, bai eliza bera, bai haren ingurua. Beraz, eremuak honako muga hauek ditu: iparraldean, 30 m-ko lur-zerrenda, fatxadarekiko paraleloa dena; ekialdean, 30 m-ra dagoen lerroa, fatxadarekiko paraleloa dena; mendebaldean, 30 m-ra dagoen lerroa, fatxadarekiko paraleloa dena; hegoaldean, lerro bat, Arbiganorako bideak hego-ekialdetik mugatzen duena eta hego-mendebaldera jarraitzen duena mendebaldeko mugaraino, planoan ikus daitekeen bezala.

Tercero.– Comunicar la resolución al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarto.– Instar al Ayuntamiento de Ribera Alta para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Quinto.– Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Ribera Alta, a los Departamentos de Cultura, Juventud y Deportes y Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Álava.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de marzo de 2009.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

ANEXO I

Delimitación

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, al propio edificio en sí y, por otro, al entorno que lo circunda. Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al N una franja de 30 m paralela a esta fachada; al E una línea paralela a la fachada y distante 30 m; al W una línea paralela situada a 30 m de la fachada; al S una línea que en su lado SE limita con el camino de acceso a Arbígano y en el SW continúa esa delimitación hasta que alcanza la línea límite W, como se puede apreciar en el plano.

b) Mugatzearen justifikazioa.

Proposatutako mugatzearen arrazoia da Arbiganoko Santa Isabel elizaren inguruak duen balioa babestu behar dela, bai ingurumenaren ikuspegitik eta baita ikusteko duen balioa dela eta. Ingurua mugatu behar da, ondarea babesteko eta balioesteko. Horretarako, elizaren inguruko eremua (lurra eta elizarako sarbidea) zaindu behar da, elizaren berezko izaera babestearren. Beraz, mugatzean ez da soilik eraikina kontuan hartuko, elizaren ingurua ere aintzat hartuko da. Hegoaldeko mugaren lerroa irregularra da, eraikinak baitaude han. Eraikin horiek errespetatu behar direla erabaki da; beraz, Arbiganora sartzeko bidea eta eraikin horiek osatutako lerroa jarri dira mugatzat.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno de la Iglesia de Sta. Isabel de Arbígano. La delimitación del entorno, necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien, implica la protección de los espacios adyacentes a la iglesia, ocupados por los terrenos y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio de la iglesia. Por ello, esta delimitación incluye no sólo la edificación de la iglesia propiamente dicha sino también el entorno que la rodea. La irregularidad de la delimitación en su lado S viene determinada por la existencia de edificaciones en ese lado por lo que se ha visto necesario respetar esas edificaciones tomando como límite el camino de acceso a Arbígano y la línea que forman esas edificaciones.


Montarredo
600
-4317
Acceso
ARBIGANO
575.8
Arroyo
a
ESKALA / ESCALA
30 0 30 60 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondareaen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
ARBIGANOKO SANTA ISABEL ELIZA
Babes eremuaren mugaketa
Delimitación del entorno de protección
Lurraldea / Territorio: ALAVA
Udalerria / Municipio: RIBERA ALTA
Data / Fecha: 04/11/2008
Eskala / Escala: 1:2000

II. ERANSKINA

Deskribapena

Gurutze latindarreko oinplanorik ez duen parrokia-eliza da. Burualdea estuagoa du, pinoian. Harlanduz, harlanduskaz eta luzitutako harlangaitzez egina dago. Elizaren bolumenak gurutze latindarreko oinplano-arekin bat egiten du iparraldean. Ipar-mendebalde-an antzinako hilerria dago, horma batez inguratuta. Hegoaldean, berriz, bolumena prisma-formakoa da, sakristia eta elizpea gurutze-besoaren lerroraino iristen baitira. Hego-ekialdean prisma-formako kanpandorrea du. Kanpaien gaineko arkuak puntu-erdikoak dira, eta estalkia lau isurikoa. Hegoaldeko arkua hormatuta dago eta erlojua dago han. Dorrearen hego-ekialdea eta hego-mendebaldea horma-bular sendoz indartuta daude, pitzadurei eta ezegonkortasunari aurre egitearren.

Hegoaldetik du sarrera; puntu-erdiko elizate handia eta luneta-ganga zeharkatu behar dira elizara sartzeko. Sarrerak ateburu xumea du. Nabeak hiru atal eta burualdea ditu, azken hori luneta-gangaz egina. Beste hiru atalek ertz-ganga dute, lore handiekin. Kaperak kanoi-gangaz estalita daude. Epistola-kaperan, iparraldean, harlandua nabarmentzen da, nahiz eta luzituta egon; moldurazko sarrera-arkua eta inposta ditu. Nabearen muturrean koru altu bat dago, egurrezko karela duena. Sakristia txikia da, angeluzuzena, eta sabai soila du.

ANEXO II

Descripción

Es un templo parroquial exento de planta de cruz latina con cabecera más estrecha en hastial. La fábrica con la que está hecho comprende sillería, sillarejo y mampostería revocada. El volumen de la iglesia se corresponde con la cruz latina de la planta en el lado norte y en su lado noroeste, cerrado por un muro se sitúa el antiguo cementerio. En cambio, en el lado sur el volumen es prismático ya que la sacristía y el pórtico alcanzan la línea del brazo de la cruz. En el lado suroeste se halla el campanario que es prismático con arcos de medio punto para las campanas y techado con una cubierta a cuatro aguas. El arco del lado sur está tapiado y en él hay colocado un reloj. La torre, en sus extremos sureste y suroeste, está reforzada con sendos contrafuertes para paliar el agrietamiento que sufre y su posible inestabilidad.

Se accede al interior desde el lado del Mediodía por pórtico con amplio arco de medio punto y bóveda de lunetos. El acceso es de dintel sencillo. La nave es de tres tramos y cabecera, ésta con bóveda de lunetos. Los otros tres tramos están cerrados por bóveda de arista con florones. Las capillas están formadas por bóvedas de cañón. En la de la epístola, al lado norte, se nota la sillería aunque esté revocada y tiene un arco de ingreso moldurado e imposta. En el extremo de la nave hay un coro alto con antepecho de madera. La sacristía es un reducido espacio rectangular de cielo raso.